



Gerraren kontrako mobilizazioak Euskal Herrian

Irakaskuntzak greba egingo du gaur eta eguerdian manifestazioak izango dira

Atzo milaka lagun bildu zen herri eta hiriburuetan 'Gerra geldierazi' lelopean

Gerra hasi zena jakin bezain pronto batzarrak egin zituzten ikasleek atzo goiz erdian eta Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan manifestazioak egin ziren eguerdian gerraren kontra. Iluntzean milaka lagun bildu zuten konzentrazioek eta gaur irakaskuntzan greba eta eguerdian manifestazioak egiteko deia luzatu zuen Gerraren Kontrako Euskal Batzordeak.

EGUNKARIA

Bart ilunabarrenean izandako bileren ondotik, Pertsiko Golkoko piztu den gerraren kontrako mobilizazio eta protesta ekintza ugari hasi da Euskal Herri osoan. Atzo gauean bertan milaka lagun bildu ziren Gerraren Kontrako Euskal Batzordeak eta Bakearen Aldeko Euskal Iniziatibak eginiko deiari jarraituz. Batzordeak atzo gaueko bederatzietatik aurrera gerrari kontra egiteko entzeronak egitera deitu zituen ikasleak.

Gaur irakaskuntza ertainean eta unibertsitatean greba egiteko deialdia egin dago eta eguerdiko hainbat manifestazioak izango dira hiriburuetan, Bilbon Arenalean, Donostian Bulebarrean, Iruñean Gaztelu plazan, eta Gasteizen Virgen Blanca plazan.

Ondoko egunotarako ere protesta ekintzekin jarraitzeko asmoa dute Golkoko gerraren kontra dauden taldeek. Urtarrilak 20, igandea manifestazioak izango dira Euskal Herriko hiriburuetan Gerraren Aurkako Euskal batzordeak deituta. Aurretik, larunbat iluntzeko zortzi t'erdietan, konzentrazioak egiteko deia luzatu



Gerraren kontra erantzun jendetsua, indartsua eta etengabea behar dela esan du Gerraren Kontrako Batzordeak. KEPA

du Bakearen Aldeko Euskal Iniziatiba taldeak.

Atzo Hego Euskal Herrian goiz erditik aurrera kalera ateratzea erabaki zuten irakaskuntza ertaineko ikaslekoaren hirutik batek. Hainbat eskolatan klaseek normal jarraitu zuten baina beste askotan batzarrak egin ondoren, bapateko manifestazioak egin zituzten.

Iruñean lau mila lagun inguru bildu ziren eta manifestazio bukaeran Gobernu Militarren aurrean eserita egon zen ikasle jendea. Bilbon ehundaka gazte hartu zuten parte manifestazioan. Arenalatik atera eta Gobernu Zibilerari abiatu ziren, bertatik berriz Arenalera bueltatzeko. Behin han Batzordeko kideek mobilizazioetan parte hartzea eta insumisiora deitzen zuen agiri bat irakurri zuten. «Gerraren aurka mobilizatu

egin behar da eta armada espainiarrean parte hartzeari uko egin» azpimarratu zuten Batzordeko kideek.

11.30etatik hasi ziren ikasleen manifestaldiak Gasteizen. Ordu horretan, hiriko bi tokitatik bildu eta manifestatu ziren ehundaka gazte, 12.30etan Virgen Blanca enparantzan multzo biak elkartzeko gero. Bertatik bi manifestaldi ezberdin atera ziren, bata Sindicato de Estudiantes-ek deitua eta bestea Gerraren Aurkako Batzordeak. Lehendabizikoak 300 bat ikasle bildu zituen eta bigarrenak 2.000 inguru, biak euri-jasa izugarri batenpean Gobernu Militarren egoitzaraino hurbildu ziren. Poliziak galerazi zien gazteei gehiegi hurreratzeko.

Baionan manifestazio bakarra arratsaldeko seirak eta zazpirak bitartean egin zuten. Isila izan zen,

antolatzaileen esanetan «egoeraren larritasunari eman dakioken erantzunik egokiena» hori delako. 500 lagun inguru bildu ziren orain arte berexirik ibili diren bi batzordeen deiturik 'Golkoko gerrari ez, mendealdeko armadak kanpora' zioen banderola bakar baten gibelean.

Jean Lissar, Frantses Estatu mailan hirurogeitamabost pertsonalitate gerlaren aurkako kolektiboaren kideak, gerla horretan, Iparra Hegoaren kontrako lehen enfrontamendu zuzena ikusten zuen, aberatsek pobreen kontra eramaten dutena.

Gerlaren Aurkako Euskal Batzordeko Irene Itursarrik, «Nazio Batuak eta Irak, bi estatu inperialisten arteko gerla horren aintzinean, herri zapalduen eskubideen alde agertu behar dela» erraten zuen.

Talde ezberdinek aho batez kondenatu dute Golkoko gerra

J.G. / DONOSTIA

Golkoko hasi berria den gerraren aurka ahots ugari entzun da Euskal Herriko talde ezberdinen artean. Esaterako, Kakitzaten esanetan «gerra hau insumisioaren alde azaltzeko soberako arrazoia da» eta datozen egunetarako iragarri diren mobilizazioen bitartez, «gizadiaren aurka erahilketa den guda» geldierazteko saioetan parte hartzeko gonbitea luzatu dute.

Elkarte sindikalek ere gogoriki kritikatu dute gerra eta berehala gelditzea eskatu dute. «Taldea zein erakunde guztien aldetik gudaren aurkako esfortzuak bateratzeko» deia luzatu dute UGTk, CCOOk, LABek, USOk, CGTk, ESK-CUISek eta STEE-EILASEk izenpetutako agiri batean. Gizarte osoko langileak bat egin dezaten eskatu dute talde sindikalek.

Salaketen ildoan, Ikasle Abertzaleek ere 'Golkoko Gerraren aurkako Euskal Batzordearen' deialdiarekin bat etorri dira eta iragarritako entzerrona, greba eta manifestazio ororen alde azaldu dira. Taldeak egindako eskakizunen artean, guda berehala gelditzearena dago, «gizarteak ez bait du nahi gerrarik, militarrek baizik».

Euskal Herriko gizartearen sektore ezberdinetan agertutako eritzien artean, KEMek ere gerraren aurka azaldu da eta insumisioaren, obejezioaren eta desertzioaren aldeko deialdia egin du. Halaber, euskal Batzordeak antolatutako ekitaldi guztiak jarraitzea eskatu dute.

Kalte ekologikoen beldur da Eki

J.A. / DONOSTIA

Estatu Batuek eta bere aliatuek bertan hasi duten gerrak ondorio ekologiko latzak ekar ditzakeela salatu du Eki talde ekologistak. «Gerrak ekarriko dituen gizasemeen heriotzez eta kalte ekonomiko eta politikoek gainera, inor gutxi aipatzen dituen kalte ekologikoak ere eragingo ditu» azaldu du Ekik.

Pertsiar Golko inguruan mila arma nuklear inguru daude Ekik dioenez, «eta horregatik arma horiek erabiltzeko, edota istripuak gertatzeko arriskua handia da» adierazi du talde ekologistak.

Ekik bere kezka azaldu du baita ere «petrolio putzuak lehertarazi ditzaketelako, eta hori horrela gertatuz gero, laino poluitzaile handia sortuko litzatekeelako, negutegi efektua areagotzeko arriskuak».

Larrea: «Bakearen otoitzak behar dira»

J.A. / DONOSTIA

Atzo goizean Bilboko Gotzaitziak egindako adierazpenetan esan zuenez, oso minduta daude Pertsiar Golkoko gerrak milioika lagunei ekarriko dion hondamendiagatik. «Gerra hasi dena jakin bezain laster, orain milioika gizon-emakume izango duten sufrimendu eta egonezina geure egiten dugu» adierazi zuen atzo Luis Maria Larrea Bilboko gotzaiak.

«Jainkoaren aurrean bakearen aldeko errezu gehiago eskatu nahi diegu fededun guztiei, kristau ala ez» esan zuen Larreak. «Jaungoikoari berriz, gizakumeen artera bakea ekar dezala eskatu nahi genioke».

Larrea gotzainak, ahalegin berezia eskatu zuen «orain gerrarekin sufrimenduan bizi diren guztiei lagundu ahal izateko».

Aste honetako ARGIA

- ☐ **IRURTZUN-ANDOAIN AUTOBIA**
irtenbidearen atzetik.
- ☐ **ELKARRIZKETAK OKUPATZAILEEKIN**
Etxeak utsik zertarako?
- ☐ **RUPER ORDORIKA:**
Iturri guztiak ireki ditut.
- ☐ **ITZULPENGINTZARI BURUZ**
mahai ingurua

Biharko prentsa gaurtik

